



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko otsailaren 12an

12 ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua, eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua, Haur Hezkuntzako lehen zikloa, 0-3 urteko tartea, arautzeari buruzkoa (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

- Mozioa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontseilariak Parlamentuan agerraldia egin dezaten batzar sektorialak egin baino lehen (18. or.).
- Mozioa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 1997an enplegatu publikoen lansariak izoztu izana baliogabetzen duen epaia aplikatzeko neurriak har ditzan (19. or.).
- Mozioa, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behi-aziendaren entzefalopatia espongiiformeari aurrea hartzeko politika integralak garatu eta koordinatuko dituen mahaia sor dezan (20. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egin, Iruña eta Galar Zendea ukituko dituen udalez gaindiko plan sektorialari buruzkoa (21. or.).
- Galdera, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak egin, Nafarroako Gobernuak E.H.N enpresako parte-hartze publikoa handitzeko interesa duenentz jakiteko (22. or.).
- Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egin, Lizarrako merindadeko zahar-etxeetako plazen premia beteta dagoenentz jakiteko (22. or.).

- Galdera, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, Irurtzun eta Etxarren bitarteko autobia zatiaren egoerari buruzkoa (23. or.).
- Galdera, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak egina, Lizarrako egungo epaitegiak hobetzeari buruzkoa (24. or.).
- Galdera, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina, errepideetatik kentzen ari diren bide-seinale elebidunen erabilerari buruzkoa (24. or.).
- Galdera, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak egina, hainbat industrialdetako proiektuen egoerari buruzkoa (25. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Parlamentuak 2000n onetsitako hainbat erabaki betetzeari buruzkoa (25. or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Lizarrako saihebiderearen azalera okupatu eta desjabetzeko tramitei buruzkoa (26.or.).
- Galdera, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina, Tuteran erdi mailako zikloak ezartzeari buruzkoa (27. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko otsailaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko

ZIOEN AZALPENA

Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legeak oinarrizko errenta aldarrikatzen du, besteak beste, Nafarroako herritarrek, horrela, dituzten eskubideez osotasunean baliatzeke aukera izan dezaten.

Lege hori onesteko, herritarren legegintza-ekimena erabili zuten milaka nafarrek, nahiz eta horrek ez duen esan nahi proposatu zutena onetsi zenik. Esan genezake legearen azken testuak

zerikusi gutxi duela, edo batere ez, lege proposamenaren jatorrizko testuarekin.

Legea onetsita ere, nafar gehienak, oinarrizko errentari dagokionez –horri buruzkoa da legea aldatzeko proposamen hau–, ados egon gabe jarraitzen dute Foru Legearen 4. artikulua –9/1999 Foru Legea– eta Foru Dekretuak –Oinarrizko Errentari buruzko apirilaren 19ko 120/1999 Foru Dekretua– ezarritako errenta horren zenbatekoarekin eta hartzaileekin.

Oinarrizko errentaren zenbatekoa Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren 100eko 75eko dirusarreraren adinako izanen da pertsona bakarrarentzat; Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren 100eko 15 baino gehiago bigarren pertsonarentzat; Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren 100eko 10 baino gehiago hirugarrenetik aurrerako pertsona bakoitzeko. Familia batek ezin izanen du Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren 100eko 125 baino gehiago jaso oinarrizko errenta gisa.

Halaber, oinarrizko errenta eskuratzeko baldintza da, besteak beste, 65 urtetik behitkoa izatea eta 25 urtetik goitikoa.

Esan daiteke, beraz, ezarritako diru-kopuruak eta adin-baldintzak ez direla nahikoa legearen oinarrizko abiaburua zena gauzatzeko, hau da, Nafarroako herritarrek zer eskubide dituzten, horietaz osotasunean baliatzeko.

Datu estatistiko eta ekonomikoetara jotzen badugu, ikusten ahal dugu Nafarroako ekonomia, iaz, % 4,5 hazi zela gutxi gorabehera, hots, aurreko urtean baino 63.621 milioi gehiago; aurreikuspenen arabera, 2001. urtean zehar % 4 inguru haziko da. Zortzi urte daramatzagu, jarraian, eten gabe gora egiten.

Gainera, hiru aurrekontualdi amaitu dira, jada, superabit ekonomikoarekin. Hain zuzen ere, Nafarroako ogasunak eginiko diru-bilketa, 2000ko aurrekontualdiari dagokionez, aurrekontuan zegoena baino 16.000.000 gehiagokoa izan da.

Nafarren soldata, batez beste, hileko 250.000 pezetakoa da gutxi gorabehera, eta, zerga aldatketen ondorioz, milaka eta milaka milioi utzi da bildu gabe.

Datu horiek kontuan hartuta, esaten ahal dugu egoera ekonomikoak aukera ematen duela, eta behartu ere bai, gure gizarteko pobrezia eta bazterkeriari aurre egiteko aplikatzen diren gizarte-politikak berrikusi eta berbideratzeko; hain zuzen, giza eta ekonomi baliabide gehiago erabiliz aipatu berdintasun ezak desagertarazteko.

Pobrezia eta gizarte-bazterkeria horiek, neurri handi batean, pertsona ugari duen baliabide ekonomiko faltak eragiten ditu; oinarrizko errentarentzako egun ezarrita dagoen zenbatekoa ez da nahikoa pertsona horien eskubideak bermatzeko. Horregatik aurkeztu dugu legea aldatzeko proposamen hau, egoera hau zuzentzen ahalegintzeko.

Aipatu beharra dago, baita ere, badirela zenbait pertsona-talde pobrezia egoerak bereziki dituztenak, hala nola 65 urte baino gehiagoko pertsonak, emakumeak batez ere. Pertsona-talde hori, 120/1999 Foru Dekretuaren arabera, oinarrizko errenta jasotzeko aukeratik kanpo gelditzen da. Hortaz, uste dugu beharrezkoa dela talde horri aukera ematea oinarrizko errenta jasotzeko.

1. artikulua. Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6koa 9/1999 Foru Legeko III. tituluko 4. artikulua ordezkatzeari; hona ordezeko testua:

“4. artikulua. Zenbatekoa.

Oinarrizko errentaren zenbatekoari dagokionez, hurrengo izanen da jaso beharreko lanbide arteko gutxieneko soldataren oinarrizko unitatea: lanbide arteko gutxieneko soldata bider hamalau, eta kopuru hori 12 pagatan zatitzea, hileko bat.

Bermatuta gelditu beharko du, oinarrizko errentaren zenbatekoaren bidez, unitate hartzaile-

ak izanen dituela dirusarrera gutxieneko batzuk; hurrengoak, hain zuzen:

- Pertsona batentzat, lanbide arteko gutxieneko soldata 1.
- Bi pertsonarentzat, lanbide arteko gutxieneko soldata bider 1,5.
- Bi pertsonarentzat, lanbide arteko gutxieneko soldata bider 2.
- Bi pertsonarentzat, lanbide arteko gutxieneko soldata bider 2,5.
- Emendiozko kide bakoitzeko, lanbide arteko gutxieneko soldata bider 0,5 gehiago.”

2. artikulua. Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6koa 9/1999 Foru Legeari beste artikulua bat gehitzen zaio:

“6. artikulua. 65 urte baino gehiago dituzten pertsonak.

Oinarrizko errentaren hartzaile izan ahalko dira 65 urte baino gehiago dituzten pertsonak, baldin eta dituzten dirusarrerak, erregelamenduz ezarritako moduan kalkulaturik, 4. artikuluan ezarritakoak baino txikiagoak badira.”

3. artikulua. Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6koa 9/1999 Foru Legeko 5. artikuluari testu hau gehituko zaio:

“65 urte baino gehiagoko pertsonak ez dute inongo akordioarik sinatu beharko administrazioarekin, edozein jardura egiteko dela ere.”

Azken xedapena

“Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari beharrezko arauak eman ditzan xedapen berrietara egokitzeko Oinarrizko Errentari buruzko apirilaren 19ko 20/1999 Foru Dekretua.

Foru Lege proposamena, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua, Haur Hezkuntzako lehen zikloa, 0-3 urteko

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak Haur Hezkuntzako lehen zikloa, 0-3 urteko tartea, arautzeari buruzko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Haur Hezkuntzako lehen zikloa, 0-3 urteko tartea, arautzeari buruzko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2001eko otsailaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Haur Hezkuntzako lehen zikloa, 0-3 urteko tartea, arautzeari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorra arautzen duen urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak xedatzen du haur hezkuntzak, alegia, sei urteko adinera bitartekoak, haurren garapen fisikoa, intelektuala, afektiboa, soziala eta morala izanen duela xede, eta borondatezkoa izanen dela.

2000ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 18/1999 Foru Legeak ezartzen du Nafarroako Gobernuak 0 urtetik 3ra bitarteko haurrendako tokien eskaintza publikoa nabarmen handituko duela toki entitateekiko hitzarmenen bitartez, LOGSEk gai horietan eskatzen duenari erantzuna emateko legegintzaldiaren amaieran. 2001eko Aurrekontuei buruzko Legeak ere, baliabide asko aurrekusten du 0-3 urte bitarteko zikloa abian jartzeko.

Haur Hezkuntzako bigarren zikloa, hiru urtetik sei urtera bitartekoa, alegia, Nafarroako Foru Komunitatean 1991/1992 ikasturtean ezarri zen orokorrean. Hezkuntza sistemaren antolamendu berritik heldu diren irakaskuntzak ezartzeko egutegiari jarraikiz, aipatutako egutegiaren iraunaldian zehar osatu eta ezarriko da etapa osoa.

LOGSEk ezartzen du, halaber, administrazio publikoek bermatuko dutela nahiko toki izatea, eskatzen duten guztiek eskolaratzeko aukera izan dezaten. Bestalde, xedatzen du administrazio publikoek, haurren hezkuntza ziurtatzeko helburuarekin, haurren zaintza eta laguntza subsidiarioki hartuko dutela bere gain, familiak, haien egoera dela-eta, erantzukizun hori betetzerik ez duten kasuetan.

Orobat, hiru urtetik beherako haurrendako laguntza eta hezkuntza zerbitzu hau sustatuz, Foru lege honen beste asmoetako bat emakumea lan munduan sartzen laguntzea da, langileen familia-bizitza eta lan-bizitza bateratzeari buruzko azaroaren 5eko 39/1999 Legearen printzipioekin bat.

Aurrerapausu nabarmena dakar gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunaren bidean, familiarri laguntzeko esparru zabalagoaren barrenean kokaturik; lana eta familia bateratu beharra gizartearen errealitate berriarekin zalan-tzarik gabe lotutako baldintza dela ulertuta.

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikulua ezartzen du zein diren toki entitateen oinarriko eskumenak, eta horien artean ez dago hezkuntzarena. Aipatutako legeak gai honetaz dio hitzez-hitz toki entitateek hezkuntza programazioan parte hartu beharko dutela eta hezkuntza administrazioarekin lankidetzan aritu, ikastetxe publikoak sortu, eraiki eta sostengatzen, kudeaketa eta parte-hartze organoetan esku hartu beharko dutela eta derrigorrezko eskolaratzea betetzen dela zaindu. Ikus daitekeenez, ez da ezer aipatzen hezkuntza etapa berrien kudeaketan eta finantzaketan parte hartzeko ardura eta betebeharrak berrien inguruan; etapa horietan erantzukizuna, koordinazioa eta finantzaketa hezkuntza administrazioari dagozkio, eta ez etapa garatzen deneko toki entitateari.

Era berean, 27. artikuluko 3. idatz-zatian adierazten du eskuordetzea eraginkorra izateko beharrokia izanen dela udalerrri interesatuak onartzea,

egin beharko duela, eta, kasu bada, dagokion autonomia erkidegoaren alde aurreko kontsulta eta txostena, salbu eta nahitaez ezartzen bada legez, baina kasu horretan bitarteko ekonomikoen dotazioa edo gehikuntza ere erantsi beharko da.

Bestalde, 25. artikuluan ezartzen du udalak, bere interesak kudeatzeko eta bere eskumenen esparruan, era guztietako jarduerak sustatu ahal dituela, bai eta bizilagunen beharrak eta nahiak asetzeko egoki iruditzen zaizkion zerbitzu publiko oro eman ere. Espresuki adierazten du gizarte zerbitzuak emateko eskumenez baliatu ahal izango dela eta halaber administrazio publikoen jardura osagarriak bete.

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorra-ri buruzko 1990eko urriaren 3ko Legeak, LOGSEk, haur hezkuntzako etapari eta beraz hura osatzen duten bi zikloi hezkuntza izaera osoa ematen die.

Horren ondorioz, sistema berriari jarraikiz, bestelako irakaskuntzak eskaintzen dituzten ikastetxeetan hiru urtetik beherako haurrendako haurtzaindegirik egoterik ez dago, hezkuntza antolamenduak arautu gabeko establezimendua baita. Irtenbide hau, behin-behinekoz eta izaera iragankorrenekin, 2002. urtera arte baizik ez da erabili ahal izanen baimenik gabeko ikastetxeetarako, LOGSEak indarra hartu baino lehenagotik zeuden eskolakoaurreko ikastetxeetarako kasu (haurtzaindegiak...).

LOGSEk 1990ean ezarritako hezkuntza erreforman, sei urtetik beherako haurrendako laguntza bi ziklotan (0tik 3 urtera bitarte eta 3tik 6 urtera bitarte) banatutako hezkuntza-jarduketa bat da, eta irizpide ahalik eta homogeneoenak bete behar ditu (adinari dagozkion desberdintasunak aintzat hartuta, gehienez ere) curriculumari eta giza eta gauza-baliabideei dagokienez.

Europar Batasuneko zenbait herrialdetan, hala nola, Frantzia, Islandia, Finlandia, Belgika, Alemanian (zenbait landerretan), Italia (Regio-Emilia) oso esperientzia onak izan dira 0-3 urte bitarteko tarte hau hezkuntza sisteman, laguntza soila gaindituta, sartzean; Nafarroako haur eskoletarako (0-3 urte) erreferentzia Regio-Emiliako esperientzia izan zen, eta tarte hau arautu eta ezartzeko jarraitu beharreko eredu da gure iritziz.

Haur eskolaren xedea izanen da, beraz, familiei laguntza ematea lehendabiziko adinetako haurrak hezten; hortaz, garrantzi berezia dute gurasoek eskola bizitzan parte hartzea bultzatuko duten bide guztiek.

Eskolak desberdintasunak berdindu beharra dauka. Aurrerago, pertsonaren garapenean bizi-tzaren lehendabiziko urteek duten garrantzia kontuan izanik, gomendatzeko modukoa da lehenbait lehen eskolaratzea haurrak, baita desoreka sozialen kasuan ere.

Azkenik, familia egitura gero eta anitzagoa eta murriztagoa da, barreneko harremanak hierarkia gero eta txikiagokoak, demokratikoagoak, erantzukizunak eta ardurak banatzen dira, paperen banaketa estereotipatuari erantzunez baino, kide bakoitzaren denbora eta gaitasunaren arabera. Hori dela eta, beharrezkoa da administrazio publikoek haur txikien garapen gero eta harmonikoago baten alde egitea. Garrantzitsua da gizartea, lan mundua eta hezkuntza bateratzea, gurasoen aisia eta denbora librearen premiarekin batera. Haur eskolak ez dira soilik hartu behar emakumeak lan munduan sartzeak dakarren ondorioz, emakumeen lana sustatzeko gizartearen betebeharrak gisa baizik.

I. Tituluak Nafarroako Foru Komunitatean haur hezkuntzako lehen zikloaren ezarpenerako printzipio orokorrak ezartzen ditu.

II. Tituluak ikastetxeetarako baimena arautzen du, bete beharreko baldintzekin batera. Titulu honen I. Kapituluak ikastetxeek bete beharreko baldintza fisikoei buruzkoa da. II. Kapituluak inguru-nearen baldintzak zehazten dira eta III. Kapituluak segurtasun arloko neurriak. IV. Kapituluak higiena arloko baldintzak biltzen ditu eta V. Kapituluak, azkenik, giza baliabideei dagozkienak.

III. Tituluak ikastetxe hauen funtzionamendu arauak erregulatzen ditu, eta halaber, ikasleak onartzeko prozedura, egutegia eta familien parte-hartzea.

IV. Tituluak ikastetxeak baimena eman eta abian jartzeari buruzkoa da.

V. Tituluak ikastetxe hauen finantzaketa araubidea arautzen du.

VI. Tituluak Haur Hezkuntzako Ikastetxeen Zuzendaritza Kontseiluari eta haren kideei buruzkoa da.

I. TITULUA

I. KAPITULUA. PRINTZIPIO OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Foru Lege honen xedea da hiru urtetik beherako haurrendako Haur Hezkuntzako ikastetxeak irekitzeko eta haien funtzionamendurako baldintzak arautzea Nafarroako Foru Komunitatean.

2. artikulua. Definizioa

Haur Hezkuntzako ikastetxearen izaera hau da: gizartearendako zerbitzu publiko espezializatu, hiru urtetik beherako haurrei hezkuntza eta laguntza jarraitua emateko helburua duena. Ikastetxe horietan zerbitzu hauek ematen dira:

1. Hezkuntza zerbitzua: lehen zikloko haur hezkuntzako curriculuma garatuko da, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege organikoari jarraikiz. Haur hezkuntzako ziklo horren ardatza dira mugimendua, gorputzaren kontrola, komunikazioaren eta mintzamenaren aurreneko agerpenak, bizikidetasun eta gizarte harremanetako oinarritzko jokamoldeak eta inguru hurbilena ezagutzen joatea.

Nafarroako Gobernuak Haur hezkuntzako etapa osatzen duten bi zikloen arteko koordinazioa eta bateratasuna, baita beste zikloen artekoak ere, bermatzeko behar diren bideak ezarriko ditu, ikastetxe mota desberdinen aukerak kontuan hartuta.

2. Laguntza zerbitzua: hiru urtetik beherako haurrei zainketa eta laguntza zerbitzuak emanen zaizkie, hezkuntzako zerbitzuaren euskarri beharrezkoa eta funtsezko osagaia diren aldetik, eta arreta berezia eskainiko zaie gizartean edo norberarengan dautzan arazoengatik egoera makurra goan daudenei, estimulatu eta integratzen ahaleginduz.

3. artikulua. Administrazio baimena.

Haur Hezkuntzako ikastetxeak ireki eta abian jartzeko, eta horretarako inguruabarrak aldatzeko, Haur Hezkuntzako ikastetxeen Zuzendaritza Kontseiluaren administrazio baimen aurretiazkoa ezinbestekoa izanen da.

Baimena jaso ahal izateko, ikastetxeek hiru urtetik beherako haur guztiendako zerbitzua eskaini beharko dute. Gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte: fisikoak, inguruneak, osasun, segurtasun eta higiene arlokoak, nola adin horretako haur taldeei kasu egiteko eskatzen diren giza baliabideei dagozkienak, foru lege honen II. tituluaren eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan xedatutakoarekin bat.

4. artikulua. Haur Hezkuntzako ikastetxeak sortzea.

1. Nafarroako Gobernuak ikastetxe hauen sorrera sustatuko du toki entitateekin izenpeturiko hitzarmenen bitartez, zerbitzu publiko horren eskaerari erantzuna ematen zaiola ziurtatzeko.

Toki entitateek zerbitzua eman ahal izanen dute zuzeneko kudeaketaren bidez, eta horretarako langile kualifikatuak kontratatuko dituzte foru lege honen V. Tituluaren ezarritako irizpideen arabera.

2. Era berean, ikastetxe hauek sortzeko baimena eskatu ahal izanen dute eskaturiko baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko pribatuek ere, Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1995 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat.

3. Foru lege honek aipatzen dituen ikastetxeen titularrek, baimena jaso badute, Nafarroako Gobernuak hezkuntza departamentuaren menpeko erregistro berezi batean egin beharko dute inskripzioa.

II. TITULUA. HAUR HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN BETE- BEHARRAK

I. KAPITULUA. GIZA BALIABIDEEN ARLOKO BETEBEHARRAK

5. artikulua. Profesional kualifikatuen titulazio betebeharrak

Haur hezkuntzako ikastetxeko profesionalek hiru urtetik beherako haurrei hezkuntza emateko kualifikazioa izan beharko dute.

Titulazio hauek eduki beharko dira: haur hezkuntzako goi mailako teknikaria edo haur hezkuntzako teknikari espezialista edo haur hezkuntzako tekniko edo ezar daitezkeen antzeko beste titulazio batzuk.

Horrez gain, lanpostu guztietan aritu ahal izanen dira maisu-maistren tituludunak, Oinarritzko Hezkuntza Orokorreko irakaslearen diplomadunak edo Lehen Hezkuntzako maisu-maistrarena; betiere, azken kasu horietan Filosofia eta Letretako lizentziatuetako (Hezkuntzaren Zientzien Atala) edo Filosofia eta Hezkuntzaren Zientziatutako lizentziatuetako (Hezkuntzaren Zientzien Atala) Haur Hezkuntzako, Eskolaurreko Hezkuntzako edo Eskolaurreko Pedagogia espezialitateak izanez gero, edo homologaturiko espezialitate kurtsoak gaindituta izanez gero.

Halaber, Pedagogia, Psikologia eta Psikopedagogiako lizentziatuek ere bete ahal izanen dituzte lanpostu horiek.

6. artikulua. Langileen plantilla.

a) Profesional kualifikatuak

Ikastetxe hauetan, baimena jaso duten unitateak adina profesional kualifikatu izanen da, gehi beste bat hiru unitateko, unitate bakoitzeko haurrak uneoro kasu eginik egotea bermatzeko.

Plantilla ehuneko hogeita hamar handitu ahal da gehienez, zerbitzu-ematearen ordutegiaren arabera; zerbitzu-ematea hamabi ordukoa izanen da egunero.

Profesional kualifikatu horietako bat izanen da koordinazio pedagogikoaren arduraduna, eta ikastetxeko zuzendari ere arituko da.

Halaber, beharrezkoa izanen da pediatria bat lanaldi partzialean aritzea, ikastetxearen instalazioetan sor litekeen edozein arazo ebazteko.

b) Zerbitzuetako langileak

Ikastetxeek garbiketarako langileak ere izanen dituzte, baimenduriko unitate-kopuruan behar beste; sukaldeko langileak ere izan ahalko dituzte, zerbitzu hori ematen bada, eta, betiere, zerbitzu hori kanpora ateratzea justifikatu beharko dute.

7. artikulua. Osasun-baldintzak.

Langile guztien osasun-egoerak erabat egokia izan beharko du eritasun infekzio-kutsakorrei dago-kienez. Horretarako, jardueraren titularrak izanen du lan osasunari buruzko araudi indarduna eta unean uneko osasun-jarraibideak betetzeko erantzukizuna.

Elikagaien prestakuntzan edota banaketan parte hartzen duten langile guztiek elikagaien erabiltzaile txartela eduki behar dute.

8. artikulua. Unitate bakoitzeko haur-ratioa.

1. Lehen zikloko haur hezkuntzako ikastetxeek gehienez ere ondoko haur kopurua izanen dute baimenduriko eskola-unitate bakoitzeko:

– Urtebetetik beherako haurrendako unitateak: 1/8

– Urtebetetik bi urtera bitarteko haurrendako unitateak: 1/10

– Bi urtetik hiru urtera bitarteko haurrendako unitateak: 1/12

2.- Ikastetxeak ez badauka behar beste haur, adin ezberdinetako haurrak honako ratio hauek errespetatuz unitatetan biltzea baimendu ahal da:

– Zero eta urtebeteko haurrendako unitateak: 1/7

– Urtebete eta bi urteko haurrendako unitateak: 1/10

– Zero, urtebete eta bi urteko haurrendako unitateak: 1/14

3.- Haur Hezkuntzako ikastetxeen Zuzendaritza Kontseiluak haur eta unitate kopuruen arteko erlazio hori handitu edo murriztea eta taldeez bestelako antolakerak egotea baimendu ahal da kasu zehatzetan, haurren adina, garapen psikosozial eta afektiboa, eskualdean hezkuntza-laguntzaren esparruan dauden beharrezkoak eta antzeko faktoreak kontuan izanik.

4. Lehen zikloko haur hezkuntzako ikastetxeetan haurrendatza izanen den postu-kopurua kasuan kasuko ikastetxea ireki eta abian jarri ahal izateko baimenean ezarriko da, kontuan izanik artikulua honetan eskola-unitate bakoitzerako ezarritako gehieneko haur-kopurua eta ikastetxearen instalazioak eta baldintza materialak zein diren, Foru Lege honetan xedaturikoari jarraikiz.

Betiere, eskola-unitate bakoitzeko gehieneko kopuruak murriztu egingen dira, kontuan izanik hezkuntza-premia bereziak (HPB) dituzten haurrak hartzeko aukera.

II. KAPITULUA. BETEBEHAR FISIKOAK

9. artikulua. Kokalekua.

Ikastetxeek, beraiek baizik erabiltzekoak ez diren lokaletan kokaturik egon beharko dute. Kanpoko aldetik ailegatu ahal izateko sarbide berekia izanen dute, eta gogaikarriak edo osasunerako kaltegarriak izan litezkeen jardueretatik urrun kokaturik egon beharko dute.

10. artikulua. Espazioak.

1. Ikastetxeek honako espazio hauek izan beharko dituzte:

a) Unitate bat edo bitarako gela bat, haur bakoitzeko bi metro koadroko azalera izanen duena, eta, unitate bakarria dagoenean, gutxienez ere hogeita hamar metro koadro izanen ditu. Gela bakoitzeko bi unitate badaude, gutxienezko azalera 60 metro koadrokoa izanen da, eta 1,50 metroko bereizketa-horma izanen du. Gelek gune bereiztuak izan beharko dituzte, ikastetxearen emandako baimenean ezarritako haur-multzoaren atsedean eta garbiketarako.

b) Bularreko haurrek atsedean hartu/lo egiteko guneak eta indarreko arau eta ordenantzen arabera instalazio higienikoak.

c) Elikagaiak prestatzeko gune egoki bat, erabiltzaile-kopuruaren arabera tamainakoa, eta elikagaiak gordetzeko gune egoki bat. Urtebetetik beherako haurrak badaude, biberioak prestatzeko

gune egoki bat egonen da haien gelan. Gune hori indarreko araudiak zehazturiko ekipamendua edukitzeko egokitua egonen da; besteak beste, ur hotza eta beroa, garbiketa-sistema, irakindako ura gordetzeko sistema eta biberoiak mantentzeko sistema.

d) Erabilera anitzeko gela bat. Gutxienez ere hogeita hamar metro koadro izanen ditu, eta zilegi izanen da ikastetxetik kanpo kokaturik egotea edo aisialdirako eremu publiko bat izatea, baldin eta haurrak batetik bestera eramatean haien segurtasuna bermaturik badago, eskola-garraiari behar ez bada eta ikastetxearen ingurumarian kokaturik badago.

f) Komun bat urtebete eta hiru urte bitarteko haurrendako gela bakoitzeko. Gelatik ikusteko eta bertatik iritsi ahal izateko moduan kokaturik egon beharko du, eta honako elementu hauek izan beharko ditu:

– Bi konketa.

– Bi komunontzi, haurren adinari egokituriko tainakoak.

– Bainuontzi dutxadun bat.

– Xaboi-makina bat, erabilera bakarreko toailak eta horiek jasotzeko ontzi bat, paper higienikoa eta hondakinatarako edukiontzi itxigailuduna.

– Haurrei arropa aldatzeko gainazal bat, material ez porotsuzkoa, goxoa, leuna, erraz garbitu daitekeena, haurrak ez erortzeko ertz batez inguratu, eta gutxienez 70x50 cm-koa.

g) Ikastetxeko langileendako aldagela eta komuna dituen eremu bat, haurrek erabilitako geletatik bereiztua, eta aplikatzekoa den araudiak zehazturiko zerbitzuez hornitua egonen da.

h) Ikastetxeko zuzendaritzarako, idazkaritzarako eta langileen bileretarako erabiliko den gela bat.

i) Garbigaietarako biltegi bat.

j) Halaber, armairu-multzo bat edo arropazaintza izanen dute, haurren eta ikastetxeko langileen kale-arropa gordetzeko.

2.- Ikastetxe batek gela bakarra badu, horren azalera ez da 60 metro koadro baino gutxiagokoa izanen, eta bertan gune bereiztuak antolatuta beharko dira atsedenerako, higienerako eta erabilera anitzetarako. Ikastetxe horiek aparteko eremuak izanen dituzte komunetarako, elikagaiak prestatzeko --kasua bada-- eta bulego komunetarako. Jolastokiaren azalera 50 metro koadro-taraino murriztu ahalgo da.

3. Haurrek erabiltzekoak diren instalazioetan gehienez ere %8ko malda duten arrapalak erabili beharko dira koskak berdintzeko. Eskailerak baldin badaude, haurrek horietara iritsi ahal ez izateko moduan jarririk egon beharko dute.

4. Zoru eta hormetako materialek goxoak, leunak, ez porotsuak, erraz garbitu ahal izatekoak eta disoluzio desinfektatzaileen erabilera jasateko modukoak izan beharko dute. Horma-zoruen elkarguneek borobilduak izan behar dute.

III. KAPITULUA. INGURUNEARI ETA DOTAZIOEI DAGOZKIEN BETEBEHARRAK.

11. artikulua. Ur-hornidura eta saneamendua.

1. Ikastetxearen eraikinak hornitze-sistema publikotik eskuratutako ur edangarriaren hornidura izan beharko du. Hornidurak zuzeneko hartuena izan beharko du, eta indarreko legediak ezarritako edangarritasun-baldintzak bete beharko ditu.

2. Hondakin-urak udal estolderiara edo behar bezala baimendutako beste arazketa-sistema batera isuri beharko dira. Ez da inola ere putzu beltzik baimenduko.

3. Haurren garbiketarako ur beroaren instalazioan balbula termostatiko bat jarriko da, gehienezko tenperatura berrogei gradu zentigradukoa izatea lortzeko.

12. artikulua. Berogailu-sistema.

Berogailu-sistema erregulagarria izanen da gela guztietan, halako moldez non 20° C-ko gutxienezko tenperatura lortu ahalgo den neguan. Bularreko haurren geletan hormako termometroak ipiniko dira.

Ez da sutontzirik, erresistentzia elektrikorik, butanozko berogailurik edo bestelako berogailu-sistema arriskutsurik izanen. Berogailu-sistemako elementuek babesgarriak edukiko dituzte betiere, zuzeneko kontaktuaren edo kontaktu luzearen ondoriozko istripuak eta erredurak saihesteko.

13. artikulua. Argiztapena eta aireztapena.

1. Haurrek erabiltzekoak diren instalazioek kanpoko argia eta airea hartuko dute, zuzenean, komunek izan ezik, horien aireztapena eragindakoa izan baitaiteke. Elikagaiak ikastetxean bertan egiten badira, elikagaiak prestatzeko gelak kanpo-aireztapena eta irakite nahiz frijitze azalera guztia besarkatuko dituen ke-kanporaketarako sistema bat izanen ditu.

2. Ez da inola ere hurrei arriskurik ekar liezaiekeen argiztapen-sistematik erabiliko. Bularreko haurrendako geletan ezin ahalko da argi fluo-reszenterik erabili.

3. Leihoek behar adinako aireztapena ahalbidetuko dute betiere, eta instalazioaren guztizko azaleraren seiren bateko edo gehiagoko azalera izanen dute. Euren azpiko ertza zorutik 1,5 metro-ra egonen da gutxienez ere, eta behar bezalako babesgarriak izanen dituzte, haurrak haietaraino iritsi ahal izan ez daitezzen. Haurrek erabili ezinezko irekitze-gailuz horniturik egonen dira, eta segurtasun kristalak izanen dituzte.

4. Argi naturala hobetsiko da. Argi artifizialia erabiltzen baldin bada, ez da erabat zuzenekoak izanen, eta gutxienez 300 luxeko intentsitatea daukaten argi-puntuen bitartez lortuko da. Argia pasatzen uzten duen material baten bitartez babestu beharko dira argi-puntu horiek. Ez da inola ere erabiliko bonbilla babesgaberik, globorik, pantailarik, zutikako edo mahai gainerako lanpararik ez eta hurrei arriskurik ekar liezaiekeen beste inolako argiztatze-elementurik ere.

14. artikulua. Akustika.

Kanpoaldeko zaratak eta jarduerak berak elementu mekaniko, joku, musika-ekipo edo bestelakoen ondorioz sorturiko zaratak ezin izanen dituzte inola ere gainditu indarreko legediak baimenduriko mailarik altuenak.

15. artikulua. Altzariak.

Erabilitako altzariak honako baldintza hauek bete behar dituzte:

1. Erabilitako altzariak ezpaldu ezinezkoak, ertz kamutsekoak, angelu biribilduetakoak, gainazal ez porotsuzkoak, traumatismoak eragin ditzakeen irtengunerik gabekoak eta erraz garbitu eta desinfektatzeko moduko materialez eginak izanen dira. Altzarien tamaina haurren neurrien arabera izanen da.

2. Oheak, koltxonetak edota sehaskak hurrek banaka erabiltzekoak izanen dira, eta haien gainazala laua eta gogorra izanen da. Debekaturik dago sabaiko sareak eta burukoak erabiltzea. Erabiltzen diren sehaskek homologaturik egon beharko dute.

3. Jostailu eta erabiltzekoak diren material guztiek ez toxikoak eta haurren adinari egokituak izan beharko dute, eta segurtasun nahiz homologazio arauak bete beharko dituzte.

IV. KAPITULUA. **SEGURTASUN ARLOKO BETEBEHARRAK**

16. artikulua. Autobabeserako Plana.

1. Hezkuntza Departamentuak Autobabeserako Plan bat egingen du, eta ikastetxe bakoitzerako kasuan kasuko Udalak onetsiko du.

2. Ondorio horietarako, Autobabeserako Plana honako hau da: oinarritzko dokumentu bat, xede duena, lehenik eta behin, ikastetxeko pertsonen eta ondasun materialen segurtasunari eraso egiten dion edozein gertakari kaltegarri aurreikusitako eta aurrezaintzea, eta, bigarrenik, babes-lanak egitea edo ezbeharraren aurrean jardutea hori gertatutakoan, ahalik denbora laburrenean neutralizatuz, ondorioak (kalteak, galerak...) murriztuz eta pertsonak ikastetxetik ateratzea bermatuz. Hori guztia dela-eta, eskueran dauden giza eta teknika bitartekoen antolaketa ezarri beharko da. Horretarako, langile bakoitzari eginkizun bat esleituko zaio, ikastetxe barneko pertsonak kanporatzera behartzen duen edo ez duen larrialdiren bat gertatzen den kasurako. Gela guztietan (sukaldean eta komunetan ere) aditu ahal izateko moduko entzuzko alarma sistema bat jarri beharko da, larrialdietan erabiltzeko. Halaber, ezbeharrak aurrezaintzeari eta larrialdietako osasun laguntzari buruzko hainbat puntu jasoko dira aipaturiko planean.

3. Kasuan kasuko udalari eta Foru Komunitateko Administrazioari dagokie Plana eraginkorren izateko ikuskapen-lana egitea.

17. artikulua. Segurtasun eremua.

1.- Arau orokor gisa, 1,50 metroko altueraraino segurtasun eremu bat izanen da, eta bertan ez da onartuko irtengune zorrotzik, segurtasunekoak ez den kristalik, landare arriskutsurik, traumatismoak, eragin ditzakeen beste edozein agenterik, edo elementu kaustiko edo toxikorik.

2.- Gelaren batean zoruaren parean jarritako ispiluak baldin badaude, haien euskarri den markora edo hormara itsatsirik egonen dira atzealdetik eta gainazal osoan, hausten badira puskarik eror ez dadin.

18. artikulua. Botikina.

1.- Ikastetxeek haurren eskura ez dagoen botikin bat izanen dute, gutxienez ere 1,50 metroko altueran ipinia eta behar bezala itxia. Botikinak ondoko elementu hauek izan beharko ditu gutxienez ere, behar bezalako kontserbazio eta erabilera egoeran:

a) Sendatzeko materiala: kotoia, gasak, esparatrapua, tiritak, guraizeak, pintzak, 70°ko alkohola, ur oxigenatua, tintura antiseptikoa eta erabilera bakarreko eskularruak.

b) Medikuntzako materiala: termometroa, haurrentzako antitermikoak eta serum fisiologikoa.

2.- Ikastetxe-orduetan haurren bati eman behar zaion edozein medikamentu behar bezala identifikatu eta gorde beharko da.

19. artikulua Ateak eta irteerak.

Ate guztiak material hauskaitzez eginikoak behar dute izan. Kalera irteteko ateez larrialdietan erraz ireki ahal izateko moduko sistema bat, atean bertan jarria, izanen dute, eta sistema haren funtzionamendua beroak eragin ezinekoa izanen da. Irekitze-mekanismoak ez du inola ere izan behar sistema elektriko baten bidezkoa. Haurren eskueran dauden barnealdeko ateez behatzak ez harra-patzeko sistema bat izanen dute.

20. artikulua. Suteetarako babesak.

Suteetarako babes-baldintzei dagokienez, aplikatzekoa den araudiak ezarritakoa bete beharko da.

21. artikulua. Garbiketarako tresna eta produktuak.

Ikastetxe guztiak soilik garbiketarako tresnak eta produktuak gordetzeko biltegi bat izanen dute. Biltegi horrek behar bezalako itxigailua izanen du, edonor sar ahal izan ez dadin. Garbiketarako tresna eta produktuak ez dira inoiz ere elikagaiekin edo bestelako gaiekin batera gordeko. Garbiketa produktuak erabiltzen direnean, ardurarik handienaz zainduko da horiek haurren eskueran egon ez daitezen.

22. artikulua. Jolastokia.

Ikastetxeak jolastokia baldin badauka, honako baldintza hauek bete beharko ditu:

1.- Behar adinako altuera duen hesi batez inguratua egonen da, inor baimenik gabe irten edo sar ez dadin.

2.- Landareak edo zuhaitzak baldin badauzka, arretarik handienaz zainduko da haurrek hostoak edo fruituak miazka edo irents ez ditzaten.

3.- Jolas elementuak baldin badaude, ezpaldu ezineko materialez eginak izanen dira, eta ez dira 1,5 metro baino altuagoak izanen.

4.- Zabuak baldin badaude, horiek halako moduan kokaturik egonen dira non erabiltzaileek hormekin, zuhaitzekin edo beste joku-tresnekin kolperik hartu ezin izanen baitute; ez zabuaren kulunka-bidean ezta handik erortzen badira ere.

5.- Txirristak baldin badaude, beheranzko bide zuzena izanen dute, ezpaldu ezinekoak izanen

dira, eta ez da koskarik izanen haien beheko muturraren eta zoruaren artean.

6.- Aplikatzekoa den araudia bete beharko dute dauden jolas elementu guztiak.

7.- Debekaturik daude urmael edo antzekoak eta eraman-ekarriko igerilekuak, bai eraikinen kanpoaldean bai barnealdean. Eraikitako igerilekuak baldin badaude, indarreko araudia bete beharko dute. Estolda-zuloen estalkiek segurtasun sistema bat izanen dute, haurrek manipulatu eta ireki ahal izan ez ditzaten.

23. artikulua. Korrante elektrikoaren eta gasaren hartuneak.

Korrante elektrikoaren eta gasaren hartuneak haurren eskueratik at kokatuko dira, eta nahitaezkoa izanen da behar bezalako segurtasun sistema bat. Entxufe elektrikoak segurtasunekoak izanen dira eta zorutik 1,5 metro edo gehiagoko altueran kokatuko dira. Ez da inoiz ere kable luzatzailerik izanen, eta entxufeak ez dira aparatu gehiegirekin kargatuko.

24. artikulua. Kontrola.

Langile guztiak jakin behar dute non dauden eta nola maneiatzen diren elektrizitate-etengailu nagusia eta uraren eta gasaren hornidura ixteko giltzak.

V. KAPITULUA. HIGIENE ARLOKO BALDINTZAK

25. artikulua. Saneamendu plana.

Ikastetxe guztiak idatzizko saneamendu plan bat izan behar dute. Plan horretan, honako eginkizun hauek jasoko dira, gutxienez ere: garbiketa, desinfekzioa eta intsektu nahiz arratoiak hiltzea. Planak zehaztuko ditu eginkizunak, zein langile arduratuko diren haiez, maiztasuna, material mota, erabiliko diren produktuak, hornitzailea, eginkizun horiek betetzen direla ziurtatzeko zein kontrol eginen diren eta behar bezala aplikatzeko modu zuzena zein den. Planak honako arau hauek ezarriko ditu, betiere:

a) Haurren higiene-tresnak, hala nola belakia, toaila, lerre-zapia, hortzetako eskuila, orrazea eta txupetea, ez dira haur batek baino gehiagok erabiltzekoak.

b) Haurren garbiketarako tresnak gutxienez egunean behin desinfektatuko dira. Umeak garbitzean erabilera bakarreko eskularruak erabiliko dira beti.

c) Jangela kolektiboei aplikatzekoa den osasun-araudi teknikoak bete behar da. Horrez gain, honako baldintza hauek bete behar dira:

– Sukaldearen gunean dauden instalazio guztiak erabili, mantendu eta garbitzeko jarraibideak (alegia, hozkailu, izozkailu, mikrouhin-labe, kekanporagailu, baxera-garbigailu eta abarri buruzkoak) ikusgai ipiniko dira, argi ulertu eta erraz ikusteko moduan.

– Jangela kolektiboko arduradunak izanen du eguneroko kontrol-eginkizunen ardura, osasun-ikuskapeneko zerbitzuen eskumenen kalterik gabe.

d) Hondakin eta zaborrak poltsa iragazkaitzez estaliriko zakarrontzietan bilduko dira. Zakarrontzi horiek garbitu daitekeen material sendoz eginikoak izan beharko dute, eta itxigailu hermetikoa izanen dute. Ikastetxearen ardura izanen da zakarrontzi horiek bilketa-tokira hiri hondakin solidoak kudeatzeko entitateak ezarritako moduan eramatea.

e) Ikastetxeetako instalazioak, altzariak, jostailuak eta gainerako gauzak behar bezala kontserbaturik eta garbiturik edukiko dira, eta egunero eginen dira desinfekzio-lanak. Horretarako, ohiko desinfektatzaileak erabiliko dira zoru guztian, higiene-zerbitzuetan eta sukaldean, produktu horiek aplikatzeak arriskurik ez ekartzeko erabiltzaileentzat. Inguruneak zakarrak (hautsa, hondakin arinak eta abar) aurretiaz kenduko dira, aspirazio bidez; ez da inola ere lehorreko eskobaterik egin ahalko.

f) Intsektu- eta arratoi-hilketa sistematikoki eta aldioro egin beharko dira, ikastetxearen egoeraren arabera maiztasunaz, eta, gutxienez ere, urtean behin, erabiltzaileei arriskurik ekarriko ez dien moduan. Eginkizun hori behar bezala homologaturiko eta dagokion erregistro ofizialean inskribaturiko produktuen bitartez eginen da. Edonola ere, erabilitako produktu guztiek bermatu beharko dute erabili ondoren luzaroko eragina izanen dutela, eta haien segurtasun-epeak errespetatu egiten dira. Produktu horiek aplikatzen dituen kasuan kasuko enpresak Establezimendu eta Zerbitzu Plagiziden Erregistro Ofizialean inskribaturik egon beharko du, eta horren ziurtagiri bat beharko da, zeinak zehaztu beharko baitu erabilitako produktuaren segurtasun epea, plagizidak egin, merkaturatze eta erabiltzeari buruzko osasun-arau teknikoek ezarritakoaren arabera. Aurrekoa ezertan eragotzi gabe, intsektuak eta arratoiak hiltzeko jarduketa gehiago egin daitezela agindu ahalko dute osasun-agintariek, egoki deritzotenean.

III. TITULUA: FUNTZIONAMENDU ARAUAK

26. artikulua. Zerbitzu-ematearen ordutegia.

Haur hezkuntzako ikastetxeeko 07.30etik aurrera eman ahalko dute zerbitzua, baldin eta gurasoek, euren lanbidea dela-eta, hala behar badute.

Oro har, haurrek ez dute egunean 7 ordu baino gehiago eman ahalko ikastetxean.

27. artikulua. Onarpena.

1.- Ez da hamasei aste baino adin txikiagoko haurrik onartuko.

2.- Ikastetxe bakoitzerako erabakitakoaren arabera, haurrek goiz eta arratsaldeko ordutegia izanen dute, betiere zerbitzua Foru Lege honek ratioari buruz ezarritako baldintzak betez eman badaiteke.

Halaber, ordutegi erdiko zerbitzua eman ahalgo zaie haurrei, baldin eta horrek ez baditu aldatzen aipaturiko ratioak.

Aurretik aipaturikoa eragotzi gabe, curriculumak bai goizeko bai arratsaldeko ordutegietan garatuko da.

3.- Toki entitateek sustaturiko haur hezkuntzako ikastetxeetan, ikasturtean zehar epe bat ezarriko da, hurrengo ikasturterako eskaerak hartzeko. Onarpenei buruzko ebazpena argitaratu egiten da, eta toki entitateak prestatu eta onetsiriko baremoari jarraituko zaio. Postu hutsak baldin badaude, onarpen-eskaera gehiago aurkeztu ahalko dira, eta horiek hilabetero ebatziko dira. Baldin eta hilabete jakin batean aurkeztu diren eta galdaturiko baldintzak betetzen dituzten eskaerak gutxiago badira postu hutsak baino, hitzarmenean zehazturiko baremoa aplikatuko da. Baremo horrek ondoko faktoreak hartu beharko ditu kontuan:

a) Bi ezkontideek lan egiten dutenean, laneko ordutegiaren ondorioz zer nolako beharrian daukaten.

b) Errenta-mailak, familiako kide-kopuruaren arabera.

c) Benetako bizilekurainoko edo amaren nahiz aitaren lantokirainoko hurbiltasun geografikoa, haur hezkuntzako ikastetxearen eragin-eremuaren barnean. Ikastetxearen eragin-eremua toki entitate sustatzaileen eskumenak hartzen duen eremuaren arabera izanen da. Eremu horretako haurrei lehentasunezko onarpen-eskubidea eman ahalko zaie, hitzarmenak hala ezartzen baldin badu.

d) Kasua bada, titularrak proposaturiko beste faktore berriazko batzuk.

Zerbitzu publiko hau gizarte, hezkuntza eta laguntza izaerakoa denez gero, a) eta b) letretako bakoitzaren ondoriozko puntuazioek handiagoak izan beharko dute c) eta d) letretako bakoitzaren ondorioz esleitzekoak direnak baino.

Haur Hezkuntzako ikastetxeen Zuzendaritza Kontseiluak baremoak argitaratuko ditu, dela hedabideen bitartez, dela interesatuei zuzenean emanez horri buruz eskatzen duten informazioa.

4.- Aurreko letran ezarritakoa gorabehera, arrisku edo babesgabetasun egoeran dauden adingabeek, hezkuntza-premia bereziak (HPB) dauzkaten ikasleek eta kulturarteko gutxiengoek zuzeneko onarpena izanen dute, Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiak proposaturik eta adingabekoari laguntzeko unitate eskudunak horri buruzko txostena egin ondoren.

5.- Foru Komunitateko Administrazioak finantzatzen ez dituen ikastetxeetan onartzea eskatzen denean, bertako titullarrek xedaturiko moduan jokatu da.

28. artikulua. Haur Hezkuntzako Ikastetxeen egutegia.

Ikastetxeek ikasturteka emanen dituzte zerbitzuak. Zerbitzu-ematea irailean hasiko da, eta hamaika hilabete iraunen du. Ikastetxea hilabete batez itxiko da: uztailean edo abuztuan, kasuan kasuko toki entitateak edo, ikastetxe pribatuaren kasuan, titularrak erabaki bezala. Dena den, ikasturtea hasi ondoren ere, haurrak sartu ahalko dira postu hutsak dauzkaten unitateetan, baina horren ondorioz ezin ahalko da Foru Komunitateko Administrazioaren finantzaketa handitu, funts publikoen bitartez finantzaturiko ikastetxeen kasuan.

29. artikulua. Familien parte-hartzea.

Haur hezkuntzako ikastetxeek Ikastetxeko Plana prestatu eta horren jarraipena egitean gurasoek parte har dezatela sustatuko dute. Plan horretan ezarriko dira eman beharreko zerbitzuen ildo nagusiak, hezkuntzaren eta laguntzaren arloetako helburuak eta ikastetxearen egitura eta antolaketa.

Profesional kualifikatuek haurren garapenaren eta haren ikasketa-prozesuaren bilakaeraren berri emanen diete familiei, gutxienez ere hiru hilabetean behin.

Funts publikoen bidez finantzaturiko haur hezkuntzako ikastetxe guztietan Parte-hartze Kontseilu bat izanen da. Kontseilu horretan ordezkaturik egonen dira familiak, langileak eta kasuan kasuko

toki entitatea, eta haren osaera eta eskumenak erregelamendu bidez zehaztuko dira.

IV. TITULUA BAIMENA EMATEKO ETA ABIAN JARTZEKO PROZEDURA

30. artikulua. Organo eskuduna.

Haur Hezkuntzako ikastetxeen Zuzendaritza Kontseiluak dauka Haur Hezkuntzako Ikastetxeak eratu eta abian jartzeko baimen-eskaerei buruz ebazteko eskumena.

Halaber, Kontseilu horrek ebaztuko du, arrazoiak agertuz, baimenak aldatzeko eskaerei eta eskaera horiek atzera botatzeari dagokienez.

31. artikulua. Baimena emateko prozedura.

1. Haur hezkuntzako ikastetxeak baimentzeko eskaerak Haur Hezkuntzako ikastetxeen Zuzendaritza Kontseiluari bidali beharko dizkio ikastetxea dagoen lekuko toki entitateak.

2.- Eskaerari honako dokumentu hauek erantsiko zaizkio:

a) Ikastetxea sustatzen duen toki entitate edo pertsona fisiko nahiz juridikoa.

b) Ikastetxearen izen zehatza, kokalekua eta helbidea.

c) Zenbat unitate eratzeko asmoa dagoen. Unitate horiek adinen eta postuen arabera sailkatutik agertuko dira.

d) Eraikinari buruzko oinarrizko proiektua, kasuan kasuko Lanbide Elkargoak ikusonetsia. Proiektuak Foru Lege honetan eta udal ordenantzetan ezarritako betebeharrak eta baldintzak bete beharko ditu. Jadanik eginak dauden eta birmoldaketarik behar ez duten eraikinen kasuan, oinplanoak, altxaera eta lokalen eta instalazioen kokalekua.

e) Lokalen eta instalazioen baldintza materialak, jadanik betetzen dituztenak eta proiektaturikoak bereiztuz.

f) Erosi nahi diren altzarien eta ekipo didaktikoen deskribapena eta jadanik eskueran daudenei buruzko frogagiriak.

g) Lanpostuen eta aurreikusitako langileen titulazioen deskribapena.

h) Lokalak erabiltzeko eskubidea izatea frogatzen duen titulu juridikoa eta erabilera horren iraupen-epea.

i) Ikastetxeko Plana, eman beharreko zerbitzuaren ildo nagusiak, hezkuntza-helburuak eta aurreikusitako ordutegia zehaztuz.

3. Toki entitateak eskaerari erantsiko dizkio Autobabeserako Planari eta Saneamendu Planari buruzko txostenak, eta dokumentazio guztia Haur Hezkuntzako ikastetxeen Zuzendaritza Kontseiluari bidaliko dio.

4. Haur Hezkuntzako ikastetxeen Zuzendaritza Kontseiluak, dokumentazioa jaso ondoren, espediente bat eginen du, eta bertan, gutxienez ere honako txosten hauek, zeinak nahitaezkoak eta lotesleak izanen baitira, sartuko dira:

a) Hezkuntza Departamentuko txostena, indarreko araudiak eta Foru Lege honek ezarritako hezkuntza-betebeharren betetzeari buruzkoa.

b) Barne Zuzendaritza Nagusiaren txostena, Foru Lege honek ezarritako osasun eta higiene betebeharren betetzeari buruzkoa.

c) Barne Zuzendaritza Nagusiaren txostena, Foru Lege honetan eta aplikatzekoak diren gainetako arauetan ezarritako gainerako betebeharren betetzeari buruzkoa.

d) Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren txostena, Foru Lege honetan ezarritako gainetako betebeharren betetzeari buruzkoa.

5. Espedientea amaitu ondoren, interesatuari entzun ondoren, Haur Hezkuntzako ikastetxeen Zuzendaritza Kontseiluak egoki deritzona ebatziko du baimen eskaerari dagokionez.

Baimen ebazpenak ikastetxearen berariazko izena, titulartasuna, zuzendaritza, gehieneko postu-kopurua (postuak adinaren arabera sailkatu egonen dira), gehieneko unitate-kopurua eta indarraldiaren hasiera-data zehaztu beharko ditu.

6. Ebazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izanen da. Epe horretan berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsizat joko da.

7. Ikastetxearen titularrari, ikastetxea kokaturik dagoeneko toki entitateari eta Hezkuntza, Barne eta Osasun Zuzendaritza Nagusiei jakinaraziko zaie baimena. Baimen hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta berariazko Erregistroan inskribatuko da.

32. artikulua. Abian jartzea.

1. Titularrak, ikastetxeak jarduteari ondorio guztiekin ekin baino hogeitun egun baliadun lehena-go, gutxienez, Haur Hezkuntzako ikastetxeen Zuzendaritza Kontseilura igorriko ditu honakoa egiaztatzen duten agiriak:

a) Baimenean aurreikusten ziren langileen kontratuak eta haien tituluak.

b) Obra proiekturik izan bada, haien amaieraren agiria.

c) Baimena gauzatzeko behar diren altzariak eta ekipamendua eskuratzea, kasu bada.

2. Agiriak behar bezalakoak ez direla iritiz gero, Haur Hezkuntzako ikastetxeen zuzendaritza kontseiluak behin behinekoz geldiarazi dezake abian jartzea antzemandako arazoak konpondu bitartean.

33. artikulua. Baimenaren aldaketa.

1. Ondoko inguruabar hauek ekarriko dute ikastetxeen baimena aldatzea:

a) Baimenean eskatzen diren alderdietan eragina duten lokalak aldatzea edo eraberritzea.

b) Kokalekua aldatzea.

c) Baimendutako unitateen kopurua handitzea edo murriztea.

d) Ikastetxeak atxikitzea edo bereiztea.

e) Titularraren aldaketa.

f) Berariazko izenaren aldaketa.

2. Baimena aldatzeko eskaerei 32. artikuluan aurreikusitakoarekin bat bidezkoak diren agiriak erantsi beharko zaizkie.

3. Espedientea amaiturik eta interesatuari entzun ondoren, Haur Hezkuntzako ikastetxeen zuzendaritza kontseiluak dagokiona ebatziko du baimena aldatzeko eskaeraren gainean.

Baimenaren ematearen aldeko ebazpenak baimenaren baldintza berriak ezarri beharko ditu.

Ebazpena emateko gehieneko epea sei hilabetekoa izanen da. Epe horretan ebazpen espresurik eman ezean eskaera ezetsi egin dela ulertuko da.

4. Aldaketaren xedea titularra aldatzea baldin bada eta baimena ematen bazaio, titular berria subrogatuko da baimenari eta hitzarmenari atxikitako eskubide eta betebehar guztietan, hitzarmena izenpeturik dagoen kasuan.

Titularra ezin izanen da aldatu administrazio baimena atzera botatzeko espedientea tramitatzeko ari den kasuan.

5. Aldaketa jakinaraziko zaio ikastetxeko titularrari, ikastetxea dagoen toki entitateari eta Hezkuntza, Barne eta Osasun zuzendaritza nagusiei, eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean emanen da argitara, eta erregistro berezian inskribatuko.

34. artikulua. Baimena atzera botatzea.

1. Haur hezkuntzako ikastetxeen zuzendaritza kontseiluak, baimenerako eskatzen diren baldintzak betetzen ez badira edo funtzionamenduko arauak edo hitzarmeneko aurreikuspenak ez badira betetzen, funts publikoekin finantzaturiko ikastetxeen kasuan ikastetxeko titularrari eskatuko zaio zuzen dezan berehala antzemandako akatsa.

2. Era berean, udalek udal ordenantzetan aurreikusitakoa betetzea eskatu ahalko dute.

3. Errekerimenduak behin eta berriz ez bete-tzeak edo antzemandako akatsa zuzentzeko ezintasunak ekar dezakete Haur Hezkuntzako ikastetxeen Zuzendaritza kontseiluak baimena atzera botatzea, espedientea ireki eta interesatuei entzun ondoren.

4. Haur hezkuntzako Ikastetxeen Zuzendaritza Kontseiluak eten dezake behin-behinekoz ikastetxearen funtzionamendua espedientea ebatzi bitartean, betiere urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Administrazio Publikoen Araubideari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 72. artikuluan aurreikusiriko inguruabarrak gertatuz gero.

5. Baimena atzera botatzeak berehala bete beharrekoa, izanen da, eta berarekin ekarriko du kredituak, onurak eta laguntzak ere atzera botatzea, toki entitateek sustatutako kasuan.

6. Baimena atzera botatzea baimentzen duen ebazpenak epeka aplikatzeko egutegi bat aurreikus dezake, interes publikoa kaltetua izan ez dadin.

7. Atzera botatzea jakinaraziko zaie ikastetxeko titularrari, ikastetxea dagoen toki entitateari eta Hezkuntza, Barne eta Osasun zuzendaritza nagusiei; Nafarroako Aldizkari Ofizialean emanen da argitara eta erregistro berezian inskribatuko.

V. TITULUA**TOKI ENTITATEEK SUSTATUTAKO HAUR HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN FINANTZAKETA****35. artikulua.** Finantzazioa.

1. Toki entitateek sustatutako haur hezkuntzako ikastetxeen finantzaketa araubidea hauxe izan ahalko da:

1.1. Haur Hezkuntzako ikastetxeen Zuzendaritza Kontseiluak urtero finkatuko du unitate bakoitzeko modulu ekonomikoaren zenbatekoa, unitate bakoitzaren kudeaketatik heldu diren gastu guztiek osatua. Moduluan berezita daude lansariaren zenbatekoak, gizarte kargak barne, alde batetik, eta ikastetxearen gainerako gastuak, bestetik.

1.2. Moduluen zenbatekoa honi jarraikiz finantzatuko da:

a) % 10 toki entitate sustatzaileak hartuko du bere gain.

b) % 80 Hezkuntza Zuzendari Nagusiak emanen dio toki entitate sustatzaileari dirulaguntza gisa, hitzarmena izenpetu ondoren.

c) % 10 erabiltzaileek hartuko dute bere gain, dagokion tarifa ordainduz. Tarifa hori Haur Hezkuntzako Ikastetxeen Zuzendaritza Batzordeak onetsiko du, eta Hezkuntza Zuzendaritza Batzordeak beka eta laguntza sistema bat ezarriko du familia guztiek 0-3 urte bitarteko haurrentzat tokia izan dezaten.

36. artikulua. Toki entitate sustatzaileekiko hitzarmenen edukia.

1. Hitzarmenak agiri administratiboan formalizatuko dira, eta bertan agertaraziko alderdien eskubideak eta betebeharrak, bai eta ikastetxearen ezaugarri zehatzak ere, berariazko aurreikuspenetarako arrazoi baldin badira.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoarekin ere, Haur Hezkuntzako ikastetxeen Zuzendaritza Kontseiluak eredu-hitzarmenak onetsiko ditu toki entitateek sustatutako haur hezkuntzako ikastetxeetan erabiltzeko; aipatutako horietan ezarriko dira finantzaketarako baldintzak.

3. Hitzarmenetan, gurasoek ikastetxean parte har dezaten laguntzeko neurriak aurreikusi behar dira.

4. Halaber, hitzarmenetan aurreikusi behar da zerbitzuko gutxieneko ordutegia, gurasoen ohiko lan ordutegiak kontuan harturik, eman gogo den gizarte zerbitzurako gutxieneko baldintzak bermatzeko.

5. 27. artikuluan ezarritakoarekin bat haurrak onartzeko betekizunak eta prozedura ezarriko dira.

6. Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiak eta toki entitate sustatzaileak izenpetuko dute hitzarmena, aurreikusiriko baldintzak betetzen direla egiaztatu ondotik.

VI. TITULUA.**HAUR HEZKUNTZAKO IKASTETXEEN ZUZENDARITZA KONTSEILUA****37. artikulua.**

Hiru urtetik beherako haurrentako Haur Hezkuntzako Ikastetxeen Zuzendaritza Kontseilua eratzen da.

Hauexek izanen dira Zuzendaritza Kontseiluko kideak: Hezkuntza, Lan eta Osasun zuzendari nagusiak edo haiek eskuordetzen dituztenak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko lehendakaria edo hark eskuordetzen duena. Kontseiluko burua Hezkuntza zuzendari nagusia izanen da. Zuzendaritza Kontseiluko kide izanen da, halaber, hizpidearekin eta botorik gabe, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko legelari bat, idazkari gisa.

38. artikulua. Eginkizunak.

Zuzendaritza Kontseiluaren eginkizunak hauek dira:

a) Haur hezkuntzako ikastetxeen plan orokorraren proposamena prestatzea, Nafarroako Foru Komunitatean garatzeko. Plan horren xedea izanen da hezkuntzako maila honetan dagoen eskariari eskatutako kalitateaz erantzuteko oinarritzko helburuarekin erabiltzen diren baliabideak koordinatzea eta errentabilizatzea.

b) Hiru urtetik beherako haurrei kasu egiteko hezkuntza eta laguntza ikastetxeak sortu eta abian jartzeko baimena ematea.

c) Ikastetxe hauetako unitate bakoitzeko modulu ekonomikoaren zenbatekoa ezartzea urtero.

d) Haur hezkuntzako ikastetxeen erabiltzaileek ordaindu beharreko tarifa onestea, bai eta tarifak ordaintzetik salbuesteko araubidea ere.

e) Haur hezkuntzako ikastetxeak finantzatzeko toki entitateekin izenpetu beharreko hitzarmenak edo akordioak onestea.

f) Haur hezkuntzako ikastetxeen plan orokorraren jarraipena egitea eta urteroko txostena prestatzea planaren aplikazioaren emaitzak eta noraino bete den ebaluatzeko.

g) Administrazio publikoek gai baten inguruan haren iritzia eskatzen dutenean aholkua ematea.

h) Haur hezkuntzako ikastetxeen inguruko gaietan esku hartzen duten organo publikoen arteko koordinazioa bultzatzea.

y) Haurrendako laguntza eta hezkuntza hobetzeko ekintzak proposatzea.

j) Jarduteko erregelamendua onartzea.

k) Haren eskumenen esparruan ezarriko den beste edozein eginkizun.

Xedapen gehigarriak

Lehendabizikoa. Foru Lege honek indarra hartzean jardunean dauden hiru hilabetetik behe-

rako haurrei kasu egiteko ikastetxeek, haur hezkuntzako ikastetxeen baimena jaso ahal izateko, bost urteko epea izanen dute II. Tituluan ageri diren beharkizunak betetzeko. Haur Hezkuntzako ikastetxeen Zuzendaritza Kontseiluak beharkizunetako bat betetzeko eskakizuna malgutu edo geroratu ahalko du, horretarako arrazoiak agertuz.

Haur Hezkuntzako ikastetxeen Zuzendaritza Kontseiluak behin-behineko baimena eman ahalko du haur hezkuntzako ikastetxeak sortu eta abian jartzeko, baldintza horietako bat edo batzuk betetzen ez direnean eta dagozkion txostenak egin ondoren.

Bigarrena. Foru Lege honek indarra hartzen duen egunean titulartasun publikoko edo pribatuko haurtzaindegietan harreman juridiko finko eta mugagabearen bitartez zerbitzuak ematen ari diren langileek lanean jarraitu ahal izanen dute lantoki horietan 6. artikuluan aurreikusitako titulazio baldintzak bete gabe ere, baina zazpigarren xedapen gehigarriak aipatzen duen lanbide gaitzuntza lortu beharko dute.

Hirugarrena. V. Tituluan aurreikusitako finantzaketa araubidea ez da aplikatzekoa izanen Nafarroako Gobernuak toki entitateei transferituriko ikastetxeetan, toki entitateari Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiak eman beharreko dirulaguntzari dagokionez.

Laugarrena. Nafarroako Foru Administrazioak bere lokalen erabilera laga diezaieke hala eskatzen duten toki entitateei, haur hezkuntzako ikastetxea sortzeko.

Bosgarrena. Haur hezkuntzako ikastetxeen eta haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeen artean ez da atxikipenik ezartzerik izanen ikasleak onartzeko.

Seigarrena. Haur hezkuntzako ikastetxeetan lanean aritzen direnendako prestakuntza eta birziklapenerako programa berezia prestatuko dute departamentu hauek: Hezkuntza eta Kultura, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria, Osasuna eta Barne.

Horretarako, prestakuntza plan bat onartuko da eta bertan aurreikusitako dira, batetik lanbide gaitzuntzarako hasierako prestakuntza, beharrezkoa denean eta, bestetik, langileen prestakuntza jarraitua.

Zazpigarrena. Foru lege honen 6. artikuluan xedatutakoarekin ere, profesional espezialista gisa kontratatu ahal izanen dira lanbide esperientzia frogatzen dutenak; zehazkiago, 1990etik lanean jarraian emandako bi ikasturte osoren gutxieneko esperientzia; betiere, dagokion lanbide

gaikuntza lortzen badute erregelamenduz ezarritako prozeduraren bidez.

Birtziklapenerako eskaintza bat ezarriko da, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin egindako hitzarmen baten bitartez, pertsona hauendako: atxikirik egonik, lehen eta bigarren zikloan irakasten ez duten eta behar den titulazioaren jabe ez diren langileendako.

Zortzigarrena. Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiak hezkuntza-laguntzako ikastetxeen programari behar adina langile espezialista atxikiko dio aholku teknikoa eman ahal izateko, honako hauetan oinarrituriko jarraibide pedagogiko eta orientabide didaktikoez baliatuz: Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoa, Haur hezkuntzako curriculumaren funtsezko alderdiak ezartzen dituen irailaren 6ko 1330/1991 Errege Dekretua eta Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako curriculumaren ezartzen duen abenduaren 30eko 574/1991 Foru Dekretua.

Era berean, jarraibide eta orientabide horiek praktikan aplikatzeko laguntza neurriak proposatuko ditu.

Bederatzigarrena. Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiak neurriak hartuko ditu, Haur Hezkuntzako Ikastetxeen Zuzendaritza Kontseiluak proposaturik, haur hezkuntzako ikastetxeetako talde pedagogikoen eta Haur eta lehen hezkuntzako ikastetxeen arteko harremanak eta komunikazioa onak direla ziurtatzeko.

Eskolako orientabide eta hezkuntza bereziko taldeek haur hezkuntzako ikastetxeetan sortzen den eskariari erantzunen diote.

Hamargarrena. Foru lege hau haur hezkuntzako lehen zikloa irakasten den ikastetxe guztietan izanen da aplikatzekoa eta, horrenbestez, ondoriorik gabe gelditu da, ziklo honi dagokionez, unibertsitatez kanpoko ikastetxeetarako baimena emateko prozedura arautzen duen uztailaren 6ko 251/1992 Foru Dekretuan xedatutakoa.

Xedapen iragankor bakarra

Haur hezkuntzako lehen zikloa irakasteko ikastetxeetarako baimena eskuratzeko foru lege honek indarra hartu baino lehen aurkeztu diren eskaerak, tramitazio bidean daudenak, foru lege honetan xedatutakoari jarraikiz tramitatuko dira.

Xedapen indargabetzailea bakarra

Foru lege honetan ezarritakoaren aurka doazen maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak indarririk gabe geldituko dira.

Azken xedapenak

Lehendabizikoa. Baimena ematen zaio Hezkuntza eta Kultura kontseilariari eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariari foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Bigarrena. Hezkuntzari buruzko 1970eko Lege Orokorraren babesean haurtzaindegirako emaniko administrazio baimenak indarririk gabe geldituko dira herri berean haur hezkuntzako ikastetxe bat abian jarri eta hurrengo ikasturtean.

Hirugarrena. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontseilariak Parlamentuan agerraldia egin dezaten batzar sektorialak egin baino lehen

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontseilariak Parlamentuan agerraldia egin dezaten batzar sektorialak egin baino lehen".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Foru Araubide Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko otsailaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Foru Araubide Batzordean tramitatzeko:

Nafarroako Gobernuak kontseilariak ministerio bakoitzak bere esparruan antolatzen dituen batzar sektorialetan hartu ohi dute parte.

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak beharrezkotzat jotzen du parte-hartze hori, zeren, gure ustez, parte hartzeko eta eskualde politikak elkarren artean zein estatu mailako jarduketekin koordinatzeko tresna izan baitaiteke.

Nafarroari dagokionez, parte-hartze hori kome-nigarria da Nafarroa-Estatua harremana eta lankidetzaren sendotzeko eta Nazioko Gobernuarekiko harremanetan zintzilik dauden gaiak konpondu eta bideratzeko.

Nolabait ere badu Europar Batasuneko estatu kideen ministroen bileren antza –juridikoa ez bada ere–, Espainiako ministroek Diputatuen Kongresuan haien berri ematen baitute.

Halere, Nafarroan ez da ohikoa Parlamentuan halakorik egitea, eta horregatik aurkeztu du Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak honako mozioa.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du nazio mailako batzar sektorialak egin aurretik kontseilariak Parlamentuko batzordean agerraldia egin dezaten, batzar horretan jorratuko diren gaien eta Nafarroako Gobernuak bertara eraman eta defendatuko duen jarreraren berri emateko, eta batzarra egin eta gero izandako emaitzak azal ditzaten.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 26an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 1997an enplegatu publikoen lansariak izoztu izana baliogabetzen duen epaia aplikatzeko neurriak har ditzan

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 1997an enplegatu publikoen lansariak izoztu izana baliogabetzen duen epaia aplikatzeko neurriak har ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko otsailaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Entzutegi Nazionalak 2000ko azaroaren 7an emandako epaiak baliogabetu egin zuen 1997an enplegatu publikoen lansariak izoztu izana; izan ere, 1994ko irailaren 15ean aurreko Gobernuaren eta sindikatuen artean lortutako akordioa ez bete-tzea erabaki zuen PPko Gobernuak.

Epaiari jarraikiz, akordioan sartzen diren funtzionario publikoek eskubidea dute 1997ko KPIren igoera jasotzeko, bai eta ondoko urteetan igoera horren ondorioz jaso gabe geratutako zenbatekoak ere. Epaiak administrazio inplikatuari agintzen die hainbat arinen negoziatzeko akordio horretako II. tituluko VI. kapituluan ezartzen den lansarien igoera.

Hori dela-eta aurkeztu dugu ondoko erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du presako neurriak har ditzan

1.- Aurrekontu zein administrazio aldetik bete dezan enplegatu publikoen 1997ko lansarietan KPI igotzeari eta ondoko urteetan horrek duen eraginari buruz Entzutegi Nazionalak 2000ko azaroaren 7an emandako epaia.

2.- Epaia aplikatzearen akordia sinatu zuten sindikatuekin negoziazio prozesuari ekin diezaion.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 26an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behi-aziendaren entzefalopatia espongiformeari aurrea hartzeko politika integralak garatu eta koordinatuko dituen mahaia sor dezan

EUSKAL HERRITARROK PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da behi-aziendaren entzefalopatia espongiformeari aurrea hartzeko politika integralak garatu eta koordinatuko dituen mahaia sor dezan”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2001ko otsailaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak, Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordean hainbat arinen eztabaidatu eta bozkatzeko:

Iragan urtarrilaren 22an, Nafarroako bi abelburutan “behi eroen” ustezko bi kasu antzeman zirela iragarri zuen Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak; harrezkero ezin ukatuzkoa da herritarren artean larritasuna sortu dela, eta horrek eragina izan du abere sektorean; izan ere, behi-aziendaren haragiak behera egin du merkatuan.

Egoerak garbi asko erakusten du krisi honi aurre egiteko beharrezkoa dela politika integralak garatea Nafarroan, inplikaturiko eragile guztien arteko koordinazio, parte-hartze eta bat etortzetik abiatuta gaitzari aurrea hartzeko neurriak ezartzearen.

Hala eginez gero, ezartzen diren neurriak eraginkorrak izanen direlako bermea izanen dugu, eta, gainera, desagertu eginen da segur aski gizartean sortu den larritasuna, guztiok izan beharreko jarrera arduratsuaren mesedetan.

Bestela, nork bere kabuz neurriak hartzeak –sektorea eta kontsumitzaileak aintzat hartu gabe– ez du inongo bermerik ematen, eta ez du iritzi publikoari zerbait egiten ari delako irudia helarazteko borondate arduragabea baizik erakusten.

Hori dela-eta, krisi honetan inplikaturako eragile guztiak modu koordinatuan aktibatzekeo premia jabetuta, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztu du ondoko

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ahalik eta lasterren era dezan Foru Administrazioa –Osasun eta Nekazaritza departamentuek ordezkaturak–, abere sektorea zein ukitutako gainontzeko sektoreak eta kontsumitzaileak elkartuko dituen mahaia, Nafarroan behi-aziendaren entzefalopatia espongiformeari aurrea hartzeko politika integralak ezarri, koordinatu eta garatzearren.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 29an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

F saila:
GALDERAK

Iruña eta Galar Zendea ukituko dituen udalez gaindiko plan sektorialari buruzko galdera

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Iruña eta Galar Zendea ukituko dituen udalez gaindiko plan sektorialari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak eskatu du Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 189. artikulua xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du, Nafarroako Gobernuak ahozko erantzuna eman dezan Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordean:

Bertako prentsan heldu denez (2001-01-23ko Diario de Navarra eta 2001-01-19ko Diario de Noticias), Nafarroako Gobernuak Galar Zendea (Cordovilla) eta Iruña ukituko dituen udalez gaindiko plan sektoriala (UGPS) sustatzen ari da.

Proiektuak, praktikan, Galarko udal plana aldatzea dakar. Plan hartan, funtsean, Parke Teknologikoa sortzea eta 200 etxebizitza eraikitzea aurreikusten zen. Iruñeko Udalak, berriz, eraikin gabeko natur parkea egin asmo zuen. Galarko azaleran luxuzko 1.500 etxebizitza eginen dira eta Iruñekoan, aldiz, Parke Teknologikoa.

Antza denez, UGPS horrek, praktikan, Nafarroako Gobernuak 1.000.000 m² doan eskuratzea

ekarriko luke –gaur egun hainbat partikularrenak dira, eta bertan zen eraikitzekoa Iruñeko natur parkea–, eta trukean birsailkatu eginen litzateke Galarko Parke Teknologiko eraikitzeko zen azalera 1.500 etxebizitza eraiki ahal izateko. Hori horrela baldin bada, Iruñeko Udalak egin asmo zuen eraikin gabeko parke naturala ez da eginen, Parke Teknologikoa Iruñean eginen da Galarko udal mugapean egin ordez, eta jabeek 1.000.000 m² horiek “doan” lagako dituzte –bertan ezin izanen zuten eraiki– luxuzko 1.500 etxebizitza eginen diren azaleraren truke.

Hori dela-eta, hauxe galdetzen dugu:

1.- Goian esandakoa errealitatearekin bat dator ala zehaztu egin behar da?

2.- Galarko eta Iruñeko udalak, ados al daude?

3.- Zein da partikular horiek Nafarroako Gobernuari Iruñean doan lagako lizkieketen lurzatie balio aktuariala zein merkatukoa? Zein Galarko “ordokia” deitutakoan lortuko luketen lurzati eraiki-garriarena?

4.- Zenbateko dirusarrerak izanen dituzte udal-ek etxebizitzetako instalazioak (Galar) eta industria-zerbitzuetakoak (Iruña) direla eta?

5.- Zer inbertsio egin beharko du Nafarroako Gobernuak bi udal horietan? zenbateko kostua izanen dute?

6.- Zer dio hitzez hitz lurzatie jabeekin eginiko hitzarmenak? nork proposatuta –Gobernuak, udalak ala jabeak– egin zen?

Espresuki eskatzen dugu galdera honi presako tramitazioa eman dakion, 189. artikuluko bigarren idatz-zatian ezarritakoari jarraikiz.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 26an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Nafarroako Gobernuak E.H.N enpresako parte-hartze publikoa handitzeko interesa duenentz jakiteko galdera

FORU PARLAMENTARI FÉLIX M^a TABERNA MONZÓN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 5ean egindako bilkuran, foru parlamentari Félix M^a Taberna Monzón jaunak Nafarroako Gobernuak E.H.N enpresako parte-hartze publikoa handitzeko interesa duenentz jakiteko egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak eskatu du Osoko Bilkuran ahozko erantzuna eman dakion.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Félix Taberna Monzón jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du, Osoko Bilkuran erantzun diezaioten:

Iberdrola eta Endesaren arteko bat-egite proiektuak sortu duen egoerak eragina izan dezake Nafarroako industria publikoen mapan. Lehiaren Epaitegiak bat-egite hori dela-eta emandako irizpenak ondoko baldintza ezartzen die enpresa horiei bat egin ahal izateko: atzera egin dezaten energia ekoitzi eta sortzeko zein beste sektore batzuetan eginiko inbertsioetan. Desinbertsio horrek eragina izan dezake sektore publikoak eta enpresa horiek batera jarduten duten enpresa-proiektuetan. Egunotan ikusi dugunez, zenbait autonomia erkidegotako gobernual prest azaldu dira desinbertsio horiek bereganatzeko. Halatan, E.H.N enpresan ere gerta litezke akziodunen aldaketak. Eta noraezean dabilenak ez duenez sekula ere haizea alde izanen, hona gure galdera:

Ba al du Nafarroako Gobernuak E.H.N enpresako parte-hartze publikoa handitzeko interesa?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: Félix Taberna Monzón

Lizarrako merindadeko zahar-etxeetako plazen premia beteta dagoenentz jakiteko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 5ean egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Lizarrako merindadeko zahar-etxeetako plazen premia beteta dagoenentz jakiteko egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariak idatziz erantzun diezaioten:

1.- Zure departamentuaren ustez, Lizarrako merindadeko plazen premia –bere kasa molda-

tzen direnen zein laguntza behar dutenak, etxebizitza babestuetan eta eguneko zentroetan— beteta al dago?

2.- Zenbat plaza dago gaur egun aurreko galderan aipatutako kasuetako bakoitzean?

3.- Ba al dago itxaron zerrendarik? Halakorik baldin badago, zenbat pertsona dago horietako bakoitzean?

4.- Lizarrako merindadeko zenbat herritar dago ingresatuta merindade kanpoko zahar-etxeetan? Zehaztu zahar-etxe horiek publikoak ala pribatuak diren.

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Irurtzun eta Etxarren bitarteko autobia zatiaren egoerari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 5ean egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Irurtzun eta Etxarren bitarteko autobia zatiaren egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasunako foru parlamentari

José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Irurtzun eta Etxarren bitarteko autobia zatiaren zola oso narriatuta dago; hori dela-eta, arriskutsua eta ia ezinezkoa da bertatik behar bezala ibiltzea.

1.- Zure departamentuaren ustez, beharrezkoa al da hainbat arinen esku hartzea egoera konpontzeko?

2.- Noiz konponduko duzue arazo larri hori?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

Lizarrako egungo epaitegiak hobetzeari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ M^a AIERDI FERNÁNDEZ DE BARRENA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 5ean egindako bilkuran, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak Lizarrako egungo epaitegiak hobetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasunako foru parlamentari José María Aierdi Fernández de Barrena jaunak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du, Lehendakaritza, Justizi eta Barne kontseilariak idatziz erantzun diezaien:

Lizarrako merindadeko hainbat entitate eta erakundek Nafarroako herri horretako epaitegiaren gabeziak salatu ditu berrikitan.

1.- Noizko dago aurreikusita egungo epaitegiak –San Martin plazakoak, udaletxe zaharrean daudenak– hobetzeko obrei ekitea?

2.- Zenbateko kostua dago aurreikusita?

3.- Non izanen da, eta zenbateko kostua izanen du, obrak dirauen bitartean?

4.- Zenbat langile ditu gaur egun?

5.- Aurreikusita al dago plantilla handitzea?

6.- Aztertu al da epaitegi horiek beste inon behin betiko jartzeko aukera?

7.- Zure departamentuaren ustez, normaltasunez ekin al diezaioke epaitegiak egun bere lanari?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

Errepideetatik kentzen ari diren bide-seinale elebidunen erabilerari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 5ean egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak errepideetatik kentzen ari diren bide-seinale elebidunen erabilerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeari

atxikitako Eusko Alkartasunako foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduko 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak idatziz erantzun diezaien:

Zertan erabiliko ditu zure departamentuak gure erkidegoko eremu mistotik egun kentzen ari den bide-seinale elebidunak? Ez baldin badu beste ezertan erabiliko, non gorde edo deuseztatuko ditu?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Hainbat industrialdetako proiektuen egoerari buruzko galdera

FORU PARLAMENTARI JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 5ean egindako bilkuran, foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak hainbat industrialdetako proiektuen egoerari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Legegintzaldi honen hasieran, hau da, 1999ko azaroan, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilari Nuria Iturriagagoitia Ripoll andreak, Parlamentuan egindako agerraldian iragarri zuen proiektu fasean zeudela Nafarroako zenbait herritako industrialdeak, eta beste zenbaitetan aurretiko azterlanak egiten ari zirela.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi da:

1.- Kontseilariak 2000ko apirilaren 14an Parlamentuan emandako erantzunean esan zuen Fustiñana, Milagro, Gares, Ultzama, Urdiain, Altsasu eta Vianakoak proiektu fasean zeudela. Zer fase-tan daude orain proiektu horiek?

2.- Kontseilariak orobat esan zuen Antzin, Azagra, Cadreita, Faltzes, Irunberri, Larraun, Meseta de Salinas, Rocafortekoa handitzea, Funes eta Bortziritako industrialdetarako aurretiko azterlanak egiten ari zirela. Zer egoeratan daude herri horietako azterlanak eta zein da horietako bakoi-tza betetzeko aurreikuspena?

3.- Tafallako La Nava industrialdeari dagokionez, addenda bat sinatu zen Nafarroako Gobernuaren eta SEPESen arteko lankidetzarako esparru akordioan, estatuko sozietateak La Navako industrialdearen handitzea susta dezan, eta udalez gaindiko plan sektoriala prestatzeari ekin zitzaion. Zertan da La Navako industrialdea handitzeko tramitazioa?

Iruñean, 2001eko urtarrilaren 30ean

Foru parlamentaria: José Andrés Burguete Torres

Parlamentuak 2000n onetsitako hainbat erabaki betetzeari buruzko galdera

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Parlamentuak 2000n onetsitako hainbat erabaki betetzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Nafarroako Parlamentuak, aurkeztu diren mozioen zein Komunitatearen egoerari buruzko eztabaidaren ondorioz, berrogeita hamar erabaki baino gehiago onetsi ditu, bai Osoko Bilkuran bai batzordeetan, 2000n. Horien bitartez, Nafarroako

Gobernua premiatzen zen hainbat plan prestatu eta hainbat politika aurrera eramatera.

2001eko bilkuraldia hasi denez, Parlamentuan onetsitako ekimenen betetzea zertan den jakin nahi dugu. Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

Zertan dira Nafarroako Parlamentuak, aurkeztu diren mozioen zein Komunitatearen egoerari buruzko eztabaidaren ondorioz, onetsi dituen erabakiak?

Iruñean, 2001eko otsailaren 1ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Lizarrako saihebiderearen azalera okupatu eta desjabetzeko tramitei buruzko galdera

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Lizarrako saihebiderearen azalera okupatu eta desjabetzeko tramitei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

Lizarrako saihebidereak –N-111 errepidea– denbora asko darama funtzionatzen, aspaldixko

bukatu baitziren obrak, eta aspaldi, noski, okupatu saihebiderea egiten hasteko lurrak.

Egin ziren desjabetzek ukitutako jabeetako batzuek adierazi zuten ez zirela ados ez ordaintan jasotako diruarekin ez desjabetzearekin berekin, eta akten aurkako errekurtsioa jarri eta eskaini zitzaizkien diruari uko egin zioten.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

– Zertan dira Lizarrako saihebiderea egiteko lurrak desjabetu eta okupatzeko tramiteak?

– Zenbat dira ukitutakoak eta zenbateko azalera dute ebazteke dauden espedienteek? zenbat egiten du jabeek jaso ez duten diruak?

– Ba al du Nafarroako Gobernuak gai honetan zintzilik dauden auziak azkartu eta behin betiko konpontzeko asmorik, inolako kalte-ordainik jaso gabe errekurtsioa jartzean euren lurrak de facto galdu zituzten jabeen egoera konpontzearen?

Iruñean, 2001eko otsailaren 1ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Tuteran erdi mailako zikloak ezartzeari buruzko galdera

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko otsailaren 5ean egindako bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Tuteran erdi mailako zikloak ezartzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko otsailaren 7an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN EDUKIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko eledun Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, hurrengo galdera egin du idatziz erantzun diezaioten:

1997-1998 ikasturteaz geroztik, Lanbide Hastapeneko Programak –elektromekanika eta jatetxe zein tabernako zerbitzuak– ematen dira Corellako

industrialdeko nabe batean. Ikasketa horiek egiten dituzten ikasleen kopuru eskasa dela-eta, ematen du ez dutela jarraipenik izanen eta beharrezkoa dela hautabide bat bilatzea.

Eskola Kontseiluak, Udalak eta Gurasoen Elkartek erdi mailako ziklo bat (sukaldaritza eta jatetxeko zerbitzuak) sortzea proposatzen dute, Erriberan ez baitago halakorik.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

- Zergatik ukatu du orain arte Hezkuntza eta Kultura Departamentuak Corellan erdi mailako ziklo bat (sukaldaritza eta jatetxeko zerbitzuak) sortzea?

- Zertarako erabiliko da etorkizunean gaur egun Lanbide Hastapeneko Programak –elektromekanika eta jatetxe zein tabernako zerbitzuak– emateko erabiltzen den Corellako industrialdeko nabea?

Iruñean, 2001eko otsailaren 1ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia Hiria

P. K. Probintzia

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--